



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

**2012-2015 JARDUERA PLANA
TOKIKO AGENDA 21
2015eko otsailaren 21eko Foro-ren
berrikusketa**

LE 2 ekintzak. Ingurune naturala eta bioaniztasuna

LE 2. UDALERRIKO BALIO NATURALAK, BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA MANATENTZEA

P. 2.1. Natura-intereseko guneak babesteko eta berreskuratzeko programa

2.1.1. Kartografiak egitea, eta udalerriko natura- eta ingurumen-intereseko area guztiak babestea eta leheneratzea. Arduraduna: Ingurumen Saila.

2.1.2. Flora eta fauna espezieen habitat naturalei buruzko informazio-panelak ezartzea, haien gozamenerako, balio natural nagusiei kalterik egin gabe. Arduraduna: Ingurumen Saila.

2.1.3. Jabetza publikoko basoak identifikatzea, eta Bolue bidea berreskuratzea. Arduraduna: Ingurumen Saila.

2.1.4. Zona horiek basoberritzeko “ingurumenaren kudeaketa iraunkorrerako irizpideak” ezartzea, eta, helburu horretarako, alboko udalei, Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari diru-laguntzak eskatzea. Arduraduna: Ingurumen Saila.

2.1.5. Boluen eta kostan dagoen bioaniztasunari etengabeko jarraipena egitea, arrain-, hegazti- eta flora-erroldekin eta -inbentarioekin, eta giza presentziaren kontrolarekin. Halaber, PASER eraztunketa- proiektuarekin aurrera egitea, kudeaketarako, eraztunketa-eskolarako eta ate irekien jardunaldiak ospatzeko datuak lortze aldera. Arduraduna: Ingurumen Saila.

2.1.6. Udalerriko espezie exotikoak kontrolatzea. Arduraduna: Ingurumen Saila.

2.1.7. Korridore berde ekologiko bat sortzea. Arduraduna: Hirigintza Saila.

2.1.8. Urlehortarrak, apo lasterkaria, adibidez, kudeatzeko eta mantentzeko politika, baliabide ezberdinak erabilita, hala nola monitorizazio eta lehendik dauden azpiegiturak mantentzea. Eta gainontzeko urlehortarrekin ere gauza bera egitea: inbentarioa eguneratzea, urmaelak eratzera...Arduraduna: Ingurumen Saila.

2.1.9. Kostako txilardiak berreskuratzea. Arduraduna: Ingurumen Saila.

2.1.10. Zuhaitziak eta parkeetako eta hiri-lorategietako beste balio ekologiko batzuk seinaleztatzea. Arduraduna: Ingurumen Saila.

Berde kolorea: egiten ari direnak. Gorri kolorea: egin gabekoak. Urdin kolorea: egiteko bidean daudenak.



Ekintzak proposatzea LE 2. Ingurune naturala eta bioaniztasuna (II)

P 2.2. Ekosistema urtarrak babesteko, hobetzeko eta sustatzeko programa.

2.2.1. Ur-analisiak egitea Gobelako, Bolueko eta kostako itsas ekosistemetan, haien bilakaera eta hobekuntza aztertzeko. Arduraduna: Ingurumen Saila.

P 2.3. Itsasertza babesteko, hobetzeko eta sustatzeko programa.

2.3.1. Sopolako Udalarekin lankidetzan Barinetxe-La Salbaje hondartzako duna-ekosistemak berreskuratzeko eta mantentzeko aukera aztertzea, eta, bestalde, egiten diren mantentze-jarduerak egonkortzea eta haiei jarraipena egitea, aldian-aldian. Arduraduna: Ingurumen Saila.

2.3.2. Azkorriko hondartzako duna-ekosistemen kontserbazio-, berreskuratze- eta mantentze-jarduerak egonkortzea eta haiei jarraipena egitea, aldian-aldian. Arduraduna: Ingurumen Saila.



LE.3 Udalerriko hirigintza-hobekuntza sustatzea

P 3.1. Etxebizitzara sarrera erraztea

3.1.1. Etxebizitza Planaren garapena, Getxoko hiri-lurzoruan. Arduraduna: Hirigintza Saila.

3.1.1.1. Babes- publikoko etxebizitzak eraikitzea urbanizatutako edo urbanizatzeko prozesuan dauden udal lursailetan (eremuak: Alango, Sarrikobaso, Venancio, Konporte Iturribarri eta Ormaza). Arduraduna: Hirigintza Saila.

3.1.1.2. Eraikuntza-prozesua amaitzea eta etxebizitza babestuen ematea, alokairuan, Alangoko eta Juan Bautista Uribarriko gazteentzat. Arduraduna: Hirigintza Saila.

3.1.1.3. Lurzoruak erostea babes- publikoko etxebizitzetarako. Arduraduna: Hirigintza Saila.

P 3.2. Berdeguneen garapenerako eta hobekuntzarako programa.

3.2.1. Lurzoru publikoko berdeguneen ratioa hobetzea, biztanle bakoitzeko, eta hirigintza-jarduerak berriak aprobetxatzea. Arduraduna: Hirigintza Saila.

3.2.2. Lehendik zeuden zuhaitzen ale berriak sartzeko urbanizazio berrietan, beren dimentsioagatik, tamainagatik edo interes bereziagatik mantendu behar direlako. Arduraduna: Hirigintza Saila.

P 3.3. HAPO berrikusteko programa.

3.3.1. Gako parte-hartzailean, iraunkorrean eta adostasunez definitzea Getxoko etorkizuna, HAPOren berrikusketa-prozesuaren bitartez. Arduraduna: Hirigintza Saila.

LE 4. Mugikortasun iraunkorra eta garraio publikoa sustatzea

P 4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna hobetzeko eta sustatzeko programa

4.1.1. Plazak, pasealekuak eta oinezkoen zonak hobetzen jarraitzea, eta aurrekontu-eskuragarritasunaren arabera, idatzitako proiektu hauek garatzea, lehentasun-ordenik gabe: Txakursolo, Aiboa, eta Zulueta kaleetako eta Portuko pasealekuko bideak berrantolatzea; San Ignazio parkea urbanizatzea; Landene, Kantarepe, Kaba eta Abasota kaleak urbanizatzea; bidea berrantolatzea Lertegui eta Zugazarte arteko bidegurutzetan; Alango kalea urbanizatzea Foruen eta Martikoena kaleen atean; Cristobal Colon eta Tilos kaleak urbanizatzea, Madisolotik, eta Cristobal Colon behe-pasabidetik, Neguriko etorbidera; Maidagan kaleko plaza urbanizatzea; Kale Nagusia urbanizatzea; Alango plaza urbanizatzea; Ollarretxe kaleko urbanizazioa eta estolderia-sareak berritzea eta hobetzea. Maximo Aguirre kalea urbanizatzea eta berrantolatzea, Ibaigane eta Eduardo Coste artean. Arduraduna: Azpegiturak eta Zerbitzu Saila.

4.1.2. Bidegorrien Plan Bereziarekin jarraitzea, udal-barrutian. Arduraduna: Azpegiturak eta Zerbitzu Saila.

4.1.3. Bizikletak aparkatzeko tokiak jartzea udalerrian, erabiltzaileen mugikortasuna errazteko ikastetxeetara, lantokira, saltokietara, kirol- eta aisialdi-guneetara, hiriguneetara, sarrera mekanikoetara, metro-geltokietara, hondartzetara eta kostako pasealekuetara. Arduraduna: Azpegiturak eta Zerbitzu Saila.

4.1.4. Getxobizi zerbitzua zabaltzeko aukera aztertzea. Arduraduna: Ingurumen Saila.

P 4.2. Hiri-mugikortasunean autoaren erabilera murrizteko programa

4.2. Hiritarrak sensibilizatzeko eta kontzientziatzeko kanpainak egitea, helburu hauek betetzeko: garraio publikoa sustatzea; bizikleta erabiltzea pertsonekin eta ingurumenarekin errespetutsua den garraibide moduan; oinezkoen mugikortasuna areagotzea; eta mugikortasun iraunkorrerako jarduera programarekin jarraitzea, bat etorritz Europako "autorik gabeko hiria" jardunaldiarekin, eta Mugikortasun Astearekin. Programan, Getxoko udalerrian arazo hori jasaten duten eta kezkatuta dauden sektoreek parte hartuko dute. Arduraduna: Ingurumen Saila.

LE 5. Ur-horniduraren kudeaketa optimizatzea eta haren kontsumoa arrazionalizatzea

P 5.1. Uraren aurrezkoa eta erabilera eraginkorra hobetzea

5.1.1. Ur-kontsumoan aurrezteko neurriak aintzat hartzea, ura aurrezteko teknologiak ezartzearen bitartez udal-proiektu eta berrikuntza berrietan, eta baita babes ofizialeko etxebizitzetan ere.
Arduraduna: Hirigintza, Azpiegiturak eta Zerbitzu Saila.

5.1.2. Sektore guztietan ur-kontsumoa murrizteko praktika onen informazio-kanpainak burutzea.
Arduraduna: Ingurumen Saila.

5.1.3. Edateko ur txarra duten bide-sarearen ureztaketa eta garbiketa sustatzeko neurriak ezartzea.
Arduraduna: Azpiegiturak eta Ingurumen Saila.

P 5.2 Kontabilizatu gabeko ura kontrolatzeko eta murrizteko programa (jarioak, hartune ilegalak, erabilera publikoak...)

5.2.1. Ur-horniduren kontrola hobetzen jarraitzea, jarioek eragindako galerak eta udal-zerbitzuetako kontsumoak ezagutzeko; helburu horretarako, abian jarriko da ur-banaketarako udal sarearen Sektorizazio Plana, sarearen eraginkortasuna hobeto kontrolatzeko. Arduraduna: Azpiegiturak eta Zerbitzu Saila.

5.2.2. Ur-hornidura sareak hobetzea eta modernizatzea, sarearen eraginkortasuna areagotzeko eta galerak eta kontrolik gabeko kontsumoak murrizteko. Arduraduna: Azpiegiturak eta Zerbitzu Saila.

LE 6. Hondakinen murrizketa eta birziklapena sustatzea eta areagotzea

P 6.1. Hiri-hondakinen murrizketarako, gaikako bilketarako eta birziklapenerako programa

- 6.1.1 Prestakuntza-, kontzientziazio-, eta sentsibilizazio-kanpainak egitea, etengabe, herriko sektore guztiei zuzenduta, hiri-hondakinen murrizketan eta birziklapenean aurrera egiteko. Arduraduna: Ingurumen Saila.
- 6.1.2. Gaikako zabor-bilketarako edukiontzi-kopurua egokitzea (beira, papera-kartoia, edukiontzi horia), hiritarren eskaeraren eta dentsitate gutxiko guneen arabera. Arduraduna: Azpiegiturak eta Zerbitzu Saila.
- 6.1.3. Hiri-hondakinen material organikoaren gaikako zabor-bilketaren esperientzia pilotua, udalerriko zona batzuetan. Arduraduna: Azpiegiturak eta Zerbitzu Saila
- 6.1.4. Etxeko inausketen ondoriozko hondakin berdeak jasotzea, partikular bakoitzaren eskaera bidez. Arduraduna: Azpiegiturak eta Zerbitzu Saila.
- 6.1.5. Zabor-tasak ezartzeko aukera aztertzea, hiri-hondakinen sorrera oinarri hartuta. Arduraduna: Azpiegiturak eta Zerbitzu Saila.

P 6.2. Hiri-hondakinen jario berezien gaikako bilketa-programa

- 6.2.1 Arropak eta etxetresna elektriko txikiak, liburuak eta mugikorak jasotzeko sisteman edukiontzi-kopurua areagotzea. Arduraduna: Ingurumen Saila.
- 6.2.2. Etxeko hondakin toxikoak jasotzen jarraitzea (erabilitako olioak, pilak, pinturak, lanpara fluoreszenteak, etab.), Puntu Mugikorra zerbitzuaren bitartez, eta udalerriko beste zona batzuetara zabaltzeko aukera aztertzea. Arduraduna: Ingurumen Saila.



LE 7. Udaleko energia-kudeaketa optimizatzea

P 7.1. Udaleko energia-kudeaketa hobetzeko programa

7.1.1. Udal-eraikinen, argiztapen publikoen eta Getxo Kirolakeko instalazioen energia-diagnostikoak egitea, eta jarduera-plana proposatzea. Arduraduna: Hirigintza Saila eta Getxo Kirolak.

7.1.2. Udal-instalazioen energia-kontsumoak fakturatzeko kudeaketa informatikoko sistema bat diseinatzea, eta ezartzea. Arduraduna: Azpiegiturak eta Zerbitzu Saila.

7.1.3. Energia-eraginkortasunerako irizpideak sartzea, Udalak erosiko dituen ekipo berrien hautaketan eta zerbitzuen kontratazioan. Arduraduna: Kontratazio eta Erosketa Saila.

7.1.4. Udaleko parke mugikorrekotako ibilgailuak, beren balio-bizitzaren amaieran, ingurumen-inpaktu txikiko ibilgailuekin ordezkatuko dira. Arduraduna: Azpiegiturak eta Zerbitzu Saila.

7.1.5. Gasolio-berogailu sistemen ordez sistema eraginkorragoak jartzea udal-eraikinetan. Arduraduna: Hirigintza Saila.

7.1.6. Udal-zerbitzuen energia-gastuak aztertzea (aztarna ekologikoa); esate baterako, hiri-hondakinak jasotzea eta tratatzea. Arduraduna: Azpiegiturak eta Zerbitzu Saila.

P 7.2. Aurrezkiaren, eraginkortasunaren eta energia-teknologia berrien programa, udal-instalazioetan, eta udal-barruti osoan.

7.2.1. Eraginkortasun txikiko argiak jartzea udal-eraikinetan eta argiztapen publikoan, ekonomia eta energia aurrezteko, eta, halaber, bioaniztasuna zaintzeko, argi-kutsadura murriztuz, argiztapen publikoaren kasuan, esate baterako. Arduraduna: Azpiegiturak eta Zerbitzu Saila.

7.2.2. Argiztapen publikoa egonkortzeko eta murrizteko ekipoak jartzen jarraitzea, etengabe, ekonomia eta energia aurrezte aldera. Arduraduna: Azpiegiturak eta Zerbitzu Saila.

7.2.3. Energia berrizgarrien erabilera sustatzea udal-instalazioetan eta Getxoko udalerrian. Arduraduna: Hirigintza Saila.

LE 7. Udalaren energia kudeaketa optimizatzea

(II)

P 7.3. Udalerrian energia eraginkorrak sustatzeko programa

7.3.1. Sektore guztiei zuzendutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak burutzea, udalerrian energia-eraginkortasuna areagotzeko. Arduraduna: Ingurumen Saila.


7.3.2. Energia Eraginkortasunaren Ziurtagiriaren derrigorrezko ezarpena aztertzea, udal-erakinetan, etxebizitza berrietan, etxebizitzaren sustapen publikoetan eta pribatuetan, eta birgaitze-proiektuetan. Arduraduna: Hirigintza Saila.

LE 8. Aire-kalitatearen udal-kontrola

P 8.1. Igorpen atmosferikoei buruzko informazio-programa eta udal-jarraipena

8.1.1. Harremanetan egotea arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin, gertakarien berri emateko. Arduraduna: Ingurumen Saila.

8.1.2. Getxoko Udalak jarraipena eta balorazioa egitea udalerriko aire-kalitatea zaintzeko estazioetatik lortutako datuei. Arduraduna: Ingurumen Saila.



LE 9. Soinu-kalitatearen kontrola eta udal-jarduera hobetzea

P.9.1. Soinu-kalitatearen udal-kontrola hobetzeko programa

9.1.1. Udalerriko zarata-mapa osatzea, eta hasiera ematea zarataren aurkako jarduera-planari, planak zehaztutako denboretan. Arduraduna: Ingurumen Saila.

9.1.2. Hiritarren salaketei eta kexei jarraipena egitea, jarduera zaratatsuak direla eta. Arduraduna: Udaltzaingoa eta Kalitate Saila.

9.1.3 Obretarako eta zerbitzuetarako udal-kontratazioan klausula osagarriak sartzea, soinu-kutsadura murrizte aldera. Arduraduna: Kontratazio eta Erosketa Saila.



LE 10. Ingurumeneko irizpideak sartzea udal-kudeaketan

P 10.1. Udal-kudeaketan iraunkortasun-irizpideak sartzeko programa

10.1.1. Ingurumeneko Praktika Onen gidaliburua prestatzea (energia, hondakinak, ura...), udaleko langileen jarduerak eta jarrerak hobetzeko. Arduraduna: Ingurumen Saila.

10.1.2. Ingurumenarekin zerikusia duten udal-ordenantzak eguneratzea. Arduraduna: Ingurumen Saila.

10.1.3. Erosketa eta kontratazio publiko berderako plan zehatza diseinatzea, ezartzea eta hari jarraipena egitea. Arduraduna: Kontratazio eta Erosketa Saila.

10.1.3.1. Udal-zerbitzu guztiek klororik gabeko paper birziklatua erabiltzea, eta bi aldeetatik inprimatzea. Helburu horretarako, sentsibilizazio-kanpaina bat egingo da udaleko langileen artean. Halaber, hiritarrei klororik gabeko paper birziklatua erabiltzeko eskatuko zaie, udalarera bidalitako idazkietan, eta bi aldeetatik inprimatzeko, baita ere. Horretarako ere sentsibilizazio-kanpaina bat egingo da. Saila: Kontratazio eta Erosketa Saila eta Ingurumen Saila.

P 10.2. Udal-koordinazioa hobetzeko programa, ingurumen-politikan.

10.2.1 Udal-teknikarien mahaia eratzea Tokiko Agenda 21 koordinatzeko eta garatzeko. Arduraduna: Ingurumen eta Kalitate Saila.

LE 11. Hiritarren parte-hartzea sustatzea udal- kudeaketan eta Tokiko Agenda 21n

P11.1. Tokiko Agenda 21n eztabaida eta adostasuna sustatzeko programa, eta haren ezarpenari jarraipena egitea.

11.1.1 Ingurumenaren Tokiko Foroaren funtzionamendua sustatzea eta dinamizatzea. Arduraduna: Ingurumen Saila.

P 11.2. Hiritarrek ingurumen-gaietan duten sentsibilizazioa, informazioa eta hezkuntza sustatzeko programa.

11.2.1 Erregistro-sistema bat ezartzea, eta hiritarren eskaerak kontrolatzea (informazio-eskaerak, kexak, salaketak, iradokizunak...), ingurumen-gaiei buruz, eta haien sailkapena egitea. Arduraduna: Kalitate Saila.

11.2.2 Udaleko ingurumenaren egoera sustatzea, aldian-aldian, iraunkortasun-adierazpen berrikusketaren eta argitalpenaren bitartez, udalerrian. Arduraduna: Ingurumen Saila.

11.2.3. Informazio-, sentsibilizazio- eta ingurumeneko hezkuntza-kanpainak burutzea, aldian-aldian. Arduraduna: Ingurumen Saila.

11.2.4. Udalerriko jarduerak eta balio naturalak sustatzea. Arduraduna: Ingurumen Saila.

11.2.5. Tokiko Agenda 21 Getxoko Udalaren webean sustatzea, haren difusio-bitarteko gisa. Arduraduna: Ingurumen Saila.

P 11.3. Eskolako ingurumen-hezkuntzari laguntzeko programa, udalerrian

11.3.1. Ingurumen-hezkuntzako jarduerak eta kanpainak garatzea, Eskolako Agenda 21n dauden udalerrietako ikastetxeekin koordinatuz. Arduraduna: Ingurumen Saila.

11.3.2. U udalerriko ikastetxeetan egiten diren ingurumen-hezkuntzako jardueretarako udal-laguntza eta koordinazioa. Arduraduna: Ingurumen Saila.